

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

102/2024 Mozioa, azaroaren 24koa, Vitoria-Gasteizko aireportua (Foronda) Euskadiko erreferente logistiko gisa eta konektibitate transozeanikorako erreferente gisa indartzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2024ko azaroaren 24an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

102/2024 Mozioa, azaroaren 24koa, Vitoria-Gasteizko aireportua (Foronda) Euskadiko erreferente logistiko gisa eta konektibitate transozeanikorako erreferente gisa indartzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek erakunde eskudunei eskatzen diete negoziatu eta erabaki dezatela aireportuei dagozkien eskumenak Eusko Jaurlaritzari eskualdatzea, Gernikako Estatutuan xedatutakoaren arabera.

2. Arabako Batzar Nagusiek aitortzen dute Arabako Foru Aldundiak, VIA sozietatearen bitartez, gaur egungo Vitoria-Gasteizko aireportua (Foronda) garatzen egindako lana, bai kargaren arloan erreferente izateko, bai bidaiarien hazkundeari dagokionez.

3. Arabako Batzar Nagusiek erakunde eskudunei eskatzen diete euskal aireportu-azpiegituren jarduerak planifikatu eta koordinatzeko, "aireportu bat, hiru terminal" printzipioari jarraituz, lankidetzak eta sinergiak hobetzeko, bikoiztasunak saihesteko eta instalazio guztien potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

4. Arabako Batzar Nagusiek erakunde eskudunei eskatzen diete Vitoria-Gasteizko aireportua (Foronda) eta haren instalazioak bultzatzeko, egokiak direla kontuan hartuta, Euskadiko erreferentziatzko aireportua izan dadin bai ozeanoz haraindiko konexioetarako bai salgaien konexioetarako.

5. Arabako Batzar Nagusiek erakunde eskudunei eskatzen diete Vitoria-Gasteizko aireportua (Foronda) behar beste baliabide eta bitartekoz hornitzeko, beste aireportu batzuetatik desbideratutako hegaldiak behar bezala kudeatu ahal izateko, batez ere eguraldi txarrarengatik desbideratutako hegaldiak, hain zuzen ere, salbuespenezko egoeretan azpiegituraren operatibitatea areagotzeko eta bidaiariei eragozpenak eta atzerapenak saihesteko.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 24a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA